

Denboraren makina

NAGORE IRAZUSTABARRENA

Heroina katarroarentzat

LONDRES, 1874. C.R. Alder Wright St. Mary ospitaleko kimikariak morfina hainbat azidorekin nahastu eta diazetil-morfina sortu zuen lehenengoz. Substantzia berria morfina zetozen; morfina, berriz, lo-belarraren deribatua zen.

Lo-belarra edo opioaren erabileraren lehen arrastoak Mesopotamian aurkitu dira eta duela 3.400 urtekoak dira. Mende luzetan kontsumitu zen Asian, eta Mendebaldean XIX. mendearen erdialdean sartu zen indartsu, AEBetan hain zuzen, trenbideak eraikitzen joandako txinatarrek eramanda. Cowboyak whisky botilari helduta irudikatu ohi dituzte filmetan, baina opioak ere menpekotasuna sortu zuen abeltzain bakarti askorengan. Horrekin batera, 1850. urte inguruan, 1810ean garatutako morfina erabilerazabaldutako botika gisa.

Handik urte batzuetara Alder Wrightek egindako esperimentuak, ordea, ez zuen oihartzunik izan. 23 urte geroago, beste kimikari batek, Felix Hoffmann alemaniarrek, lortu zuen berriro substantzia bera sintetizatzea. Hoffmannek Elberfeldeko Bayer botika etxean egiten zuen lan eta bere buru Heinrich Dreser-ek eskatu zion morfina eta azidoekin esperimentuak egiteko. Helburua kodeina lortzea zen, morfina baino droga ahulagoa. Baina bi aldiz indartsuagoa zen substantzia lortu zuten, eta heroina izena ipini zioten, hartzen zutenak heroiak sentiarazten zituelako. Morfinaren onurak zituen, baina hark sortutako menpekotasuna desagerrarazten omen zuen. Arrazoi zuten: gaixoen morfina erabilera zabaldu zuten, beste mendetasun handiago



Irudietan, Bayer etxeko bi iragarki, bata gaztelaniaz, bestea ingelesez. Bietan heroinaz egindako sendagaiak iragartzen zituzten katarroa eta eztula sendatzeko. Gaztelaniazkoan haur bat ageri da, botila eskuan, irribarretsu, bere katarroa desagertu dela esanez.

baten truke. Baina inork ez zekien hori, heroinaren ondorioak ikertzen bi hilabete baino ez zituztelako eman.

1898 eta 1910 urte bitartean merkaturatu zen heroina, haurrentzako katarroa sendatzeko xarabe moduan besteak beste. Harrigarria zen eztula kentzeko zuen ahalmena, baina 1910etik aurrera, menpekotasun harrigarria sortzen zuela konturatu ziren; abstinentzia sindromea agertzeko aski da bost astez egunero gramo laurden hartzea. Botiketatik desagertu eta heroinaren aurkako legeak sortu ziren han eta hemen. Orduz geroztik heroinak legez kanpo egin zituen bereak. Eta egiten jarraitzen du: azken hiru urteetan kokainak gain hartu bazion ere, azken datuen arabera berriro ere heroina da Bilboko *narkosala*-n gehien hartzen den droga. ■

ARRASTOAK



Ezkerrean Cate Blanchett; eskuinean Elizabeth I.a erreginaren erretratua.



ELIZABETH I.A Ingalaterrako erreginaren inguruko filma estreinatuko dute azaroaren 9an. *Elizabeth: The Golden Age* 1998ko *Elizabeth* filmaren bigarren zatia da eta zuzendari (Sekhar Kapur) eta protagonista (Cate Blanchett) berberak ditu. Oraingoan, Erregina Birjina (Elizabeth) eta Erregina Martiriaren (Mary Stuart, Eskoziako erreginaren) arteko gorabeherak

azaltzen dira. Eskoziako erregina katolikoa Ingalaterrako tronua bere lehengusina Elizabethi kentzen saiatu zen. Erregina Birjinaren beste etsai bat ere, Felipe II.a Espainiako erregea, ageri da filman.

Mary Stuart erreginaren bizitza beste film batek kontatuko du 2008. urtean, eta Scarlett Johansson aktorea izango du protagonista.